AUTOIKASKUNTZA

ALBISTEAK

2025 (AZAROA / ABENDUA)

24.korrika aek



Badator 24. KORRIKA!

Kalean da KORRIKA-KANTA!

24.korrika aek
Euskara gara
Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra

B2
MAILA

Badator 24. Korrika: Atharratzetik Bilbora izango da, martxoaren 19tik 29ra

AEK-k jendaurrean aurkeztu du 24. Korrika. ‘Euskara gara’ leloaren bueltan bildu nahi dituzte euskaltzaleak, «euskara ez baita muga bat; euskara arnasa da». Errigora egitasmoa omentzeko aprobetxatuko dute euskararen aldeko ekinaldi erraldoia.

BERRIA Irati Urdalleta Lete / 2025eko azaroaren 13a (moldatuta)



Ekitaldia amaituta, argazki jendetsua atera dute; bertan izan da Gasteizko euskalgintzaren lagin bat, baita AEK-ko kideak ere

Badator 24. Korrika. Lotu lokarriak eta jantzi petoa. Atera kalera. Tximeletak sabelean. Argiak. Musika. Furgonetak sumatzen dira hurreratzen. Ikusten? Bozgorailuetatik oihuak: «Hemen da Korrika!». Bai, badator 24. Korrika: Atharratzen (Zuberoa) hasiko da, martxoaren 19an, eta Bilbon amaitu, martxoaren 29an; gaur aurkeztu dute euskararen aldeko ekinaldi erraldoia, Gasteizen, Izaskun Arrue kulturgunean; Korrikaren koordinatzaile Ane Elordik hartu du hitza, baita Maialen Begiristainek eta Lurdes Etxezarretak ere, AEKren Nazio Kontseiluaren ordezkariek.

Korrikak pizten du zirrara, pizten du halako jakinmin bat. AEK-k gaur eman ditu haren inguruko xehetasun batzuk. Datak: 2026ko martxoaren 19tik —jaieguna izango da Hego Euskal Herrian— martxoaren 29ra izango da. Eta abiapuntua eta amaiera: Atharratzetik atera, eta, tipi-tapa tipi-tapa Euskal Herriaren luzezabala zeharkatu ostean, Bilbora helduko da. Aurreratu dutenez, egun osoko jai egitaraua antolatuko dute egun horretarako. Ibilbide osoa beranduago jakinaraziko dute. Itxaron egin beharko.

Ibilbide osoa oraindik ez, baina bai leloa: Euskara gara leloaren bueltan ardaztuko da 24. Korrika. Ane Elordi Korrikaren koordinatzaileak eman ditu horren gaineko azalpenak. Defendatu du euskara ez dela ez murru, ez oztopo; aitzitik, zubi lanak egiten dituela: «Euskarak denok bil gaitzake, euskara ez baita muga bat; euskara arnasa da. Euskara zubi gisa landu behar da». Eta ororentzat du lekua euskarak: euskaltegian euskara ikasten ari direnentzat, euskara etxean edo eskolan jaso dutenentzat... «Euskarak arnasa ematen digu. Euskal Herriak arnasa berria behar du; euskararen herrira jauzi egin nahi duten guztien herria gara, berton jaioak zein kanpotik etorriak; euskara baita gure arnasa, elkarren zaintzaren hizkuntza, justizia sozialaren hizkuntza». Eta euskarak ehunduko du herria, kohesiorako bide ere bai baita: «Euskal herritar guztion hizkuntza komuna izan dadin nahi dugun heinean, kohesio sozialerako tresna ere izango da».

Aurrera bai, baina atzera begira ere jarri da Begiristain. Esan du nola 23. Korrika amaitu zenean, Baionan, Herri oso bat euskararentzat izenburua jarri zion BERRIAk Korrikaren balorazioaren osteko albisteari. Bada, orain, 24. Korrikarekin, hori aldarrikatzeaz gain, herri hori nolakoa izatea nahi duten marraztuko dute. Haren hitzetan, hurrengo Korrikak sentiarazi nahi du euskara herritar guztiguztientzat «aterpe ireki eta erosoa» dela: «Berdin dio zein diren jatorri, azal kolore edo euskararen ezagutzak... Garrantzitsuena da guztiontzako lekua dagoela, eta bertan, euskararen baitan, denon artean eraikiz, azkenean aurkituko dugula gizarte zapalkuntza orotatik babestuko gaituen komunitate berdinzale eta zabal bat, gure herrian, euskararen herrian, mundu oso bat sartzen baita».



Errigorako boluntarioak kaxak prestatzen. ERRIGORA

Aldiro-aldiro, euskararen aldeko egitasmoren bati gorazarre ere egiten dio Korrikak, eta 24. aldirako Errigora aukeratu dute. Hura omenduta, Elordik nabarmendu duenez, «euskaratik, euskararentzat eta euskaraz» lanean ari den herri ekinaldi horren ahalegina txalotu nahi dute, baita babesa adierazi ere, bidea urratzen jarraitu dezaten: «Nafarroan, euskara ofiziala ez den eremu batean Errigorak euskalduntzean egiten duen ahalegina aintzatzeko era da, baita etorkizunerako bultzada emateko hauspoa ere. Jarrai dezagun euskarari puzka!».

Garra hauspotzeko politikak

Aurkezpenarekin, piztu da Korrikaren garra. Eta Korrika izango da euskararentzat eta euskaldunentzat akuilu eta babesgune. Dena den, Etxezarretak erakundeen erantzukizuna ere nabarmendu du; hots, «euskararen ekosistema babesteko eta indartzeko», behar direla hizkuntza politika «ausartak eta sendoak». Funtsean, euskara ardatz duen komunitate batean «eroso eta aske» bizitzea dute xede. Etxezarreta: «Euskal Herri euskalduna, feminista, antirrazista eta goxoa izango da gurea».

Parte hartzeko deia

Korrikan parte hartzeko martxoaren 19ra arte itxaron ezin duenak, badu horretarako aukera; korrika ez, baina bai beste hainbat modutara. Baina oraindik urrats asko dago egiteko. Korrika Kulturala, esaterako. Kaka antzezlanak irabazi zuen Korrika-AEK Kultur Sorkuntzarako II. Beka, eta horixe izango da Korrika Kulturalaren ikuskizun nagusia. Horretaz gainera, Korrikaren doako aplikazioa eskura dago gaurtik, berrituta, Android eta IOS sistema operatiboentzat. Eta Korrikaren arropa eta petoa ere dagoeneko nahi duen orok eros ditzake hiriburuetako Korrika dendetan eta online dendan.

Korrikak Errigoraren lana goratuko du; hain zuzen, egitasmo horixe izango da omendua.

Baina zer da Errigora? Proiektuak lau ardatz nagusi ditu: euskara, elikadura burujabetza, Nafarroa hegoaldea eta auzolana. Eta lau ardatz horiek uztartuta, Euskarari puzka kanpaina egin ohi dute udazkenero, 2013tik. Hain zuzen, hiru saski jartzen dituzte herritar ororen eskura, Nafarroa hegoaldeko ekoizleen produktuekin osatuta, eta saskien balioaren %25 Nafarroako erdi eta hegoaldeko euskalgintzara bideratzen dute.

"KORRIKA LAGUNTZAILEAK BIZITZA ALDATU DIT"

Miren, KORRIKA Laguntzaile egin aurretik.



Miren, KORRIKA Laguntzaile egin ondoren.



"Zoritxarrekoa nintzen. Ez nuen lan bakarrean ere irauten. Plan bat bururatzen zitzaidan bakoitzean, lagunek zeregin saihetsezinen[1] bat izaten zuten, beti: ezkontza bat, hileta bat, lapikoa sutan... Maskotekin ere ez nuen zorte hoberik izaten: Pituk, nire katuak, erosi eta egun pare batera ihes egin zidan leihotik, zazpigarren solairuan bizi ginela kontuan hartu gabe (portzierto, edo katuen zazpi bizitzena gezurra da, edo Pituk lehenengo seiak bizi izanak zituen elkar ezagutu genuenerako...); a, eta arraintxoa ito egin zitzaidan. Ez nekien zer zen semaforo bat berde aurkitzea. Murphyren legeek niretzat espresuki idatziak ziruditen, eta zerbait txarto atera bazitekeen, txarto ateratzen zitzaidan, salbuespenik gabe...

Baina egun batean, AEKko lagun batek KORRIKA Laguntzailea izatea proposatu zidan, eta baietz esan nion; harrezkero, bizitza goitik behera aldatu zait: lanak edonon ateratzen zaizkit, perretxikoen antzera; lagunak ezin dira ni gabe bizi; telefonoz gestio bat egin behar dudan bakoitzean, beti izaten da langile gizatiar[2] bat libre, niretzat, hariaren beste aldean... Gauetik goizera, infernua paradisu bilakatu zait!".

Hiztegia:

[1] saihetsezin: ekidin ezin dena
[2] gizatiar: humanoa, jatorra
[3] samingarria: mingarria
[4] atsekabe: disgustu
[5] anker: gaizto
[6] ekarpen: *aportación; contribution*



Aurreko testigantza fikziozkoa da, eta bizitza errealarekiko edozein antzekotasun kasualitate hutsa da (errealitatean, dezente samingarriagoa[3] da argazkiko aktorearen bizitza, baina ez dizugu eguna izorratu nahi haren atsekabeekin[4]); alabaina, zure kasuan egia bilakatuko balitz? Eta KORRIKA Laguntzaile ez egiteagatik zure irakasleak izaki triste eta miserable baten gisa bizitzera kondenatuko bazintu? Utziko duzu ardura hori haren lepo?

Ez izan ankerra[5], eta **egin zaitez KORRIKA Laguntzaile**. **Paradisua zure zain dago**, nonbait; eta aurkituko ez bazenu ere, **kontuan hartu** zure ekarpenaren[6] bidez **KORRIKA, eta euskara, aurrera ateratzen lagunduko duzula**. Ez da gutxi, ezta**?**

24. KORRIKA

5 AEK

► **Berridatzi esaldiak, parentesi arteko formak erabilita:**

1. Miren bakarrik ez, KORRIKA Laguntzailea egin duten guztiak dira zoriontsu. (EZ EZIK)

.....
.....

2. KORRIKA Laguntzailea egin du, eta horregatik doakio dena ondo. (-T(Z)EAGATIK)

.....
.....

3. Orain lagunekin primeran doakio, eta lanean ere bai. (BAITA ... ERE)

.....
.....

4. Orain topera dabil, badirudi inoiz ez dela horren zoriontsu izan. (ANTZA)

.....
.....

5. KORRIKA Laguntzaile egin gara, sari bat irabaztea erraza dela pentsatuta. (-LAKOAN)

.....
.....

KORRIKA LAGUNTZAILE IZATEAREN ABANTAILAK

- **Astero**, **zozketak** egingo ditugu LAGUNTZAILEEN artean... **600 sari baino gehiago**...Oro har, KORRIKAren eta AEKren ekimenetan lehentasuna edo deskontuak izango dituzu.
- **Deskontuak**, baita ere, AEKko ikastaroetan, AIZU! aldizkariko harpidetzan...
- Eta, aldiro-aldiro, **gure berri** jasoko duzu Korrika laguntzaileentzako buletinaren bitartez.

...eta garrantzitsuena, **KORRIKAren parte zara**, zure laguntzarekin egingo dugulako aurrera.

KORRIKAren telefonorako **aplikazioan** izango duzu zeure **txartel birtuala**.

DESKARGA EZAZU KORRIKA-AEK APLIKAZIOA!

Infomazio gehiago: **korrika.eus** gunean.



Kalean da 24. KORRIKA-kanta!

Kalean da 24. KORRIKA-kanta: *Euskara gara*

► **Hemen behean, kantan parte hartu duten artista batzuk ezagutuko dituzu.**



Irudia (AEK): kantaren aurkezpena (Erramun, Ane, Pello eta Maixus)

Pello Reparaz Escala (Arbizu, Nafarroa Garaia, 1990)

Musikari, konpositore eta ekoizle[1] ezaguna da, eta 24. KORRIKA-kantaren sortzaile eta zuzendari artistikoa; ... (1), ahotsetako bat ... (2) jarri du.

16 urterekin, Vendetta (2007-2018) taldearen sorkuntzan[2] parte hartu zuen (ska eta punk musika-estiloak lantzen zituen); 29rekin, Zetak taldearenean (musika pop-elektronikoa egiten dute). Lehen diskoko *Errepidean* kantak denbora gutxian milioi bat bisitari baino gehiago izan zituen sare sozialetan. Antzekoa gertatu zen 2019an *Zeinen ederra izango den* abestiarekin. ... (3), 2018-2019, Pellok *Euskalonski* telebista-saioa aurkeztu zuen, non munduan zehar bizi diren euskaldunak bisitatzen zituen.

2022an, Herri Urratseko abestiarekin itzuli ... (4) Zetak taldea; Erramun Martikorenarekin ... (5) ateratako kanta da *Itzulera*. Erabateko estilo-aldaketa izan zen. 2025ean, Euskal Herriko hiru hiriburutan ikuskizun-sorta bat antolatu du: *Mitoaroa*. Bertan, musika, dantza eta antzerkia uztartu[3] ditu.

Erramun Martikorena, goitizenez *Otsobi* (Baigorri, Nafarroa Beherea, 1943)

Sekula modu profesionalean aritu ez ... (6), jarraitzaile asko ditu Erramun Martikorenak. ... (7) laborari eta artzaina da, eta haren kantuak lurrari eta herriari oso lotuta egon dira. 24. KORRIKA-kantaren ahotsetako bat da.

Ipar Euskal Herriko bertsolarien bertsoak eta herri-kantuak kantatu ditu bereziki, askotan *a cappella*. Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean* kantaren moldaketak egin zuen ezagun eta, ... (8), erreferente da euskal musikan.

Maixux Zugarramurdi Zestau (Goizueta, Nafarroa Garaia, 1955)

Abeslaria da, eta 24. KORRIKA-kantaren ahotsetako bat. 2024an, Zetak taldearen *Hileta kantu nafarra* abestiarekin egin zen ezagun, aurretik ibilbide luzea ... (9).

Maixuxek etxe-giroan abesten zuen, abesbatzetan eta tokiko ekimenetan[4], ... (10) 2017an agertokira[5] atera zen arte. Haren hiru alabekin batera, *Artantxuriketa* ikuskizuna egitera irten zen plazara.

Iturria: eu.wikipedia (moldatuta)

Hiztegia:

[1] Ekoizle: productor/a; *producteur*
[2] Sorkuntza: creación; *création*
[3] Uztartu: unir; *atteler*
[4] Ekimen: iniciativa; *initiative*
[5] Agertoki: escenario; *scéne*

► **Azpimarra itzazu forma zuzenak:**

1. dena den / gainera / ondorioz
2. baita / ere / ere bai
3. Tarte horretan / Beraz / Harrezkero
4. zen / zuen / zuten
5. elkarrekin / elkarlanean / elkar
6. bada ere / izatearren / izateagatik
7. Lanbidea / Lanbidea / Lanbidez
8. ordurako / gaur egun / honezkero
9. izateagatik / izanagatik ere / izatearren
10. haatik / harik / harik eta

Xiberutikan Mendebaldera

Herensugeren ..... [1]
Santa-Grazitikan
Zarrakaztelura

Eta Errigoraren auzolan ..... [2]
Eskutik eskura
Hori ere bagara

Sorgin baten azken ..... [3]
Itoizko kaleetan

Zer gara euskara bera ez bagara
Maixux eta Erramunen ..... [4]

Maitasun eskutitz baten bide luzea
Xiberutikan Mendebaldera
Junkeraren fandango berri bat bezala
Bidaia berri baten bila

Ko! rri! ka!
Arranoaren hegaldia lumadi berriaz
Ko! rri! ka!
Irrintzi zahar bat aho gaztetan
Gailur berrietan

Basurdearen ..... [5] gara
Elorretatikan
Agurainaldera

Larruz eraikitako milaka ..... [6]
Dajlatik Gazara
Hor da gure gogoa

Ezkerraldeko AEK
Saretuz ..... [7]

Artzain gazte bat kontu zaharretan
Bariñako Bidane Baskaran

Maitasun eskutitz baten bide luzea
(errepika)
Ko! rri! ka!
(errepika)

..... [8] bat gâteau batean baino
Euskara gara

Ilargirik gabe mareak ..... [9]
Nola bestela?
Nola bestela?

Maitasun eskutitz baten bide luzea
(errepika)
Ko! rri! ka!
(errepika)



► **Entzun kanta eta bete hutsuneak (aukerak):**

AZTARNA	ITZALA	KANTA
GORA	EREDUA	LAUBURU
LURRA	HERRIAN	ETXOLA

ERRONKA: *baietz errepika buruz ikasi!*

FITXA TEKNIKOA:

Musika eta hitzak: Pello Reparaz (ZETAK)
Programazio eta grabaketak: Pello Reparaz
Ahotsak: Pello Reparaz, Maixux Zugarramurdi, Erramun Martikorena

Koroak: Maider, Ainhoa eta Arantxa Ansa
Koroak: Naizen elkartea
Ekoizpena: Pello Reparaz
Nahasketa: Paxkal Etxepare
Mastering: Simon Capony

Gustatu zaizu kanta?
Eta bideoklipa?

- ☐ *Bai, (izugarri) gustatu zait.*
- ☐ *Bai, baina...*
- ☐ *Ez, ez zait gehiegi gustatu.*
- ☐ *Ez dakit zer esan.*
- ☐ *... deritzot.*



1. BADATOR 24. KORRIKA!

ZER DAKIZUE KORRIKAZ? (KAHOOT)

► **Irakurri KORRIKAri buruzko albistea (2.-3. or.) eta egin *Kahoot* hau, ea adi egon zaren!**
Klikatu "Modo clasico", idatzi zure izena eta hasi jolasten!
https://kahoot.it/solo?quizId=5423d094-2fc4-4560-a846-f85badb489b8

2. KORRIKA LAGUNTZAILEA ETA MIRENEN ZORIONTASUNA

ERANTZUN ZUZENAK (AZPIMARRATUTA):

1. Miren bakarrik ez, KORRIKA Laguntzailea egin duten guztiak dira zoriontsu. (EZ EZIK)
   Miren **ez ezik**, KORRIKA Laguntzailea egin duten guztiak **ere** zoriontsuak dira.
2. KORRIKA Laguntzailea egin du, eta horregatik doakio dena ondo. (-T(Z)EAGATIK)
   KORRIKA Laguntzailea egi**teagatik** doakio dena ondo.
3. Orain lagunekin primeran doakio, eta lanean ere bai. (BAITA ... ERE)
   Orain lagunekin primeran doakio, **baita** lanean **ere**.
4. Orain topera dabil, badirudi inoiz ez dela horren zoriontsu izan. (ANTZA)
   Orain topera dabil; **antza**, inoiz ez da horren zoriontsu izan.
5. KORRIKA Laguntzaile egin gara, sari bat irabaztea erraza dela pentsatuta. (-LAKOAN)
   KORRIKA Laguntzaile egin gara, sari bat irabaztea erraza de**lakoan**.

3. KALEAN DA 24. KORRIKA-KANTA!

EGILEAK

ERANTZUN ZUZENAK (AZPIMARRATUTA):

1. dena den / **gainera** / ondorioz
2. baita / **ere** / ere bai
3. **Tarte horretan** / Beraz / Harrezkero
4. **zen** / zuen / zuten
5. elkarrekin / **elkarlanean** / elkar
6. **bada ere** / izatearren / izateagatik
7. Lanbidea / Lanbidea / **Lanbidez**
8. ordurako / **gaur egun** / honezkero
9. izateagatik / **izanagatik ere** / izatearren
10. haatik / harik / **harik eta**

KANTA

ERANTZUN ZUZENAK:

1. ITZALA; 2. EREDUA; 3. KANTA;
4. HERRIAN; 5. AZTARNA; 6. ETXOLA;
7. LURRA; 8. LAUBURU; 9. GORA.

► BIDEO HAUEK IKUSI ETA TUTOREAREKIN KOMENTATU:

1) ZER DA KORRIKA? IKUSI IRUDIAK ETA TUTOREAREKIN KOMENTATU!
Korrika.eus webgunean **"Bideokronikak 23"** idatzita hauxe agertuko da. Aukeratu zure eskualdekoa (2-4 minutu ingurukoak dira):
https://www.korrika.eus/eu/component/yendifvideoshare/search?s=Bideokronika

2) **24. KORRIKA KANTAren Spota**
https://www.youtube.com/watch?v=L8te2fngQFs&t=18s

3) **AEK zer den** jakiteko, ikusi bideo hau (Zer da AEK?):
https://www.youtube.com/watch?v=JmOQF_3xr6w (azpidatziak euskaraz)
https://www.youtube.com/watch?v=yha1qa1O5v0 (azpidatziak frantsesez)
https://www.youtube.com/watch?v=3kzfLoVO3Ag (azpidatziak gaztelaniaz)
https://www.youtube.com/watch?v=_aGcOmr0E_c (azpidatziak ingelesez)

4) ***Xiberutikan Mendebaldera*** **(24. KORRIKAren abestia eta bideoklipa):**
Xiberutikan Mendebaldera - ZETAK (24. KORRIKA), Maixux Zugarramurdi, Erramun Martikorena
https://www.korrika.eus/media/videos/2025/12/20/xiberutikan_mendebaldera2.mp4

► UNITATE HONETAKO JARDUERAK (ETA GEHIAGO):

ONLINE EGITEKO, JO HONA:
https://korrika.h5p.com/content/1292766355090014397 (B2 ONLINE)
https://korrika.h5p.com/content/1292128922913403897 (KORRIKA LEXIKOA IKASTEN)

► MIREN BEZAIN ZORIONTSU IZAN NAHI DUZU?

BADA, KORRIKA LAGUNTZAILEA EGITEKO, JO HONA:
https://www.korrika.eus/eu/laguntzailea/izan-laguntzailea

KORRIKA-AEK APLIKAZIOA DESKARGATZEKO, JO HONA:
- ANDROID: https://play.google.com/store/apps/details?id=com.korrika.eus&hl=eu
- IOS (APPLE): https://apps.apple.com/es/app/korrika-app-ofiziala/id6471959224

► EUSKAL MUSIKA ENTZUN NAHI DUZU?

ZOAZ GUNE HONETARA: BADOK.EUS

https://www.badok.eus/

KORRIKA-KANTA GEHIAGO ENTZUN NAHI DITUZU? BADA, KLIKATU HEMEN:

https://www.argia.eus/albistea/korrika-abesti-guztien-bilduma (Edizio guztietako Korrika-kantak)

Xiberutikan Mendebaldera

Herensugeren itzala
Santa-Grazitikan
Zarrakaztelura

Eta Errigoraren auzolan eredua
Eskutik eskura
Hori ere bagara

Sorgin baten azken kanta
Itoizko kaleetan

Zer gara euskara bera ez bagara
Maixux eta Erramunen herrian

Maitasun eskutitz baten bide luzea
Xiberutikan Mendebaldera
Junkeraren fandango berri bat bezala
Bidaia berri baten bila

Ko! rri! ka!
Arranoaren hegaldia lumadi berriaz
Ko! rri! ka!
Irrintzi zahar bat aho gaztetan
Gailur berrietan

Basurdearen aztarna gara
Elorretatikan
Agurainaldera

Larruz eraikitako milaka etxola
Dajlatik Gazara
Hor da gure gogoa

Ezkerraldeko AEK
Saretuz lurra

Artzain gazte bat kontu zaharretan
Bariñako Bidane Baskaran

Maitasun eskutitz baten bide luzea
(errepika)
Ko! rri! ka!
(errepika)

Lauburu bat *gâteau* batean baino
Euskara gara

Ilargirik gabe mareak gora
Nola bestela?
Nola bestela?

Maitasun eskutitz baten bide luzea
(errepika)
Ko! rri! ka!
(errepika)



FITXA TEKNIKOA (KANTA):

Musika eta hitzak: Pello Reparaz (ZETAK)
Programazio eta grabaketak: Pello Reparaz
Ahotsak: Pello Reparaz, Maixux Zugarramurdi, Erramun Martikorena
Koroak: Maider, Ainhoa eta Arantxa Ansa, Naizen elkartea
Ekoizpena: Pello Reparaz
Nahasketa: Paxkal Etxepare
Mastering: Simon Capony

FITXA TEKNIKOA (BIDEOKLIPA):

Zuzendaritza: Pello Reparaz
Abeslariak: Maixux Zugarramurdi, Erramun Martikorena, Pello Reparaz,
Dantzariak: Izar Aizpuru, Nerea Vesga, Ibon Huarte, Izaro Urrestarazu
Artelanak: José Ramón Anda
Zuzendaritza laguntzailea: Aitor Aranguren
Argazki Zuzendaritza: Julen Arregi
Ekoizpena: MUGA, Erik Suso, Eki Sagarzazu
Kamera laguntzailea eta fokista: Beñat Goia
Gaffer-a: Aitor Arruti
Elektrikariak: Iñigo Braulio, Iñaki Agirrezabalaga
Jantzitegia: Nerea Torrijos, Myriam Lizarralde
MUAH: Amaia Urrestilla
Argazki finkoa: Iker Gozategi
Edizioa: Aitor Aranguren
Kamera materiala: Ogeita4
Argiztapen materiala: Kinolux Gipuzkoa